

## **PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA**

A.O.I.A taldea

Gure proiektua kirol makinetan datza, makina horiek energia sortzen dute sorgailu batzuen bitartez. Energia mota garbiago bat sortzeko xedearekin eta kirola egitearen beharrezkotasuna ikusita, ideia egokia dela iruditzen zaigu energia sortzen duten kirol makina batzuk ekoiztu eta saltzea. Horrez gain, hainbat makina sortuko ditugu, bezeroek aukera ezberdinak edukitzeko; bizikleta makinak eta korri egiteko zintak esaterako. Gure proiektuarekin, klima eta ingurune garbiagoak lortzea bermatuko dugu eta baita gizarte osasuntsu eta kirolari bat ere. Ingurumenari laguntzeko aurrera pausu egoki eta beharrezko bat delarik, kirol zentroetan egongo dira makinak, edonoren eskura eta gure dendan ere salduko ditugu.